



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ETXEBARRI, DONEZTEBEKO ELIZATEKO UDALAREN 2004-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARENA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Etxebarriko Udalaren 2004ko ekitaldiaren Kontu Orokorraren eta ekonomia-finantza jardueraren gaineko fiskalizazio lana mamitu du. Txostena aho batez oniritzi dute HKEEren Osokoaren kideek.

Txostenak kontularitza eta legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu, udal kudeaketa hobetzeko gomendioak eta Udalaren finantza egoera aztertzen du. Berebat, Etxebarriko Udal Euskaltegia Erakunde Autonomoaren legezkontasun eta kontularitzako fiskalizazioa besarkatzen ditu.

Udalaren jarduera aztertzean, legezkontasunaren atalean HKEEk aldeko iritzia eman du legea betetzeari dagokionez, iritzi orokor honen gainean salbuespen batzuk egin dituela.

Honela, bada, gastuen aurrekontua aldatu dela azpimarratu da, aurrekontu-araudian finkatutako betekizunak gorde gabe. Ez betetzeen artean, halaber, Amezolako Sektorean Udalari zegokion hirigintzako aprobeitxamendu bat lehia sustatu gabe besterendu dela jaso da.

Administrazioko kontratazioari dagokionez, PERI San Antonio urbanizatzeko lanetan eta Kukullaga auzora sartzeko hirugarren bideko lanetan egindako aldaketak izapidetzean hainbat akats azaleratu dira.

Udal kontuei dagokienez, fiskalizazio txostenak ondorioztatu du egoki erakusten dutela udal jarduera, nahiz aurkeztutako datuei hainbat zuzenketa egin zaizkien, Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina ekitaldi itxieran 1,3 milioi euroko zenbateko negatiboan kokatzen dutenak. Gainera, fiskalizazio txostenean gaurkotutako ondasun eta eskubideen zerrenda eza ere azpimarratu da.